JEAN BARBIER

LAMINAK

(Lapurdieraz)

2.—LAMINA ETA ATCHOA

Etche batean omen ziren jaun andre batzu, adin batetara ja helduak biak. Jauna bazoan goizik ohera, eta andrea, aldiz, berant arte ari zen, afats guziez, 'phiru -phiru" iruten.

Bainan, afats guziez ere andre gaichoari, eta bethi tenore batean, suphizkiari beheiti jausten zitzayon emazteki afotz bat, eta emazteki afotz hoi ez zen itzaltzen, afaritik zerbeit puchka bildu arte.

Iruleak aski zuen bere chingafaren eretzen hastea, bufunba beraren eta galde beraren entzuteko: "Chitchi'ta papa, papa buchtia?..."

Bazuen jada zonbait aste hola hola gerthatzen zitzayola, eta andre gaichoa, hafitua, ez zen menturatzen bere jaunari deuseren efaitera, noizbait, dudarik gabe geldituko ahal zela Lamina.

Bizkitaftean, afats batez, jaunari, ametsetarik bezela, iduritu zitzayon bere andrea solasean ari zela norbaitekin...

Emazteki gaichoa ohera ethofi zanean, galdatzen dio jaunak:

—Efazu! doi doya, ez zinen zu norbaitekin mintzo?

—Bai...

—Nor zinuen bada or?

—Ori, batere ez dakit nihaurek ere not den, bainan, badu jada zombait egun mustro bera agertzen zautala, eta bethi tenore berean, ni afaiten hasi orduko; eta chuchen galdatzen ere dautela: "Chitchi'ta papa, papa buchtia?"

—Eta emaiten diozu?

—Beharko! Zer eginen dut?

—Ontsa da! Bihar afatsean, zure orde, ni egonen naiz. Tenore hartan hola eldu den norbait ez ditake deus onik! Sorgin bat den edo Lamin zonbait... ikusiko dugu bihar. Ahal bezen poliki emanen ditut zure lephokoa eta mottoa, eta usteko du zuhaur zaituzkela han, bertze afatsetan bezala.

卐 卐 卐

Biharamunean, efan bezela, emaztekla badoa ohera, eta gizona, aldiz, gelditzen da supaztefean, eta hantchet hasten, alegia eta iruten...

Arte labufik barnean, afabots andi bat sumatzen du, eta fifindan suphizkiari beheiti jautsirik, alde aldean jartzen zayo bethiko afotza, berehala galdeka: "Chitchi 'ta papa, papa buchtia?"

Gure gizonak alegia eta ez entzun egiten du, eta sekulako kafaskan emaiten du "phiru" eta "phiru" iruten. Eta Laminak galdatzen dio oraino:

—Zein hazkarki ari zaren gaur lanean!

—Bai, atzo "frin-frin", "firun-firun" egun "fran-fran", "furdulu-furdulu"... Eta irulea bethi ari zen iruten, begi bazteraz afotzari begira. Berehala ezagutu zuen Lamin bat zela hola ethortzen zena, eta berehala ere egin bere buruarekin, lehen bai lehn handik haizatu behar zuela.

Lamina, bere alde, zerbaiti oharturik, hasten zayo galdeka:

—Ez zare zu, gauf, bethiko hartan! Borthitz iduritzen zauzkit. Zer da zure izena?...

—"Nehorknereburu".

—"Nehorknereburu?... "Eta chitchi'ta papa, papa buchtia?...

Gure gizonak padera supazter chokoan baitzuen, suan emaiten du urin ausarkirekin, eta uzten han, ongi gofitu arte.

Lamina, loriatua jada, hasten da eskuak fereka eta fereka: "Chitchi'ta papa, papa buchtia!..."

Haimbertzenarekin, noiz eta ere iduritzen baitzayo engoitik aski gofitua ditekela, iruleak "brau" hartzen du padera, eta, "pla", urina botatzen Laminari, begitaftearen erdira...

Lamina, berehala, mafakaz badoa suphizkiari gora, eta, han, kampoan, kafasia min batean biltzen ditu bere Lamin-lagunak oro. Eskuak bere begitarte efeari eutsozala, ai eneka eragoyon gelditu bere egin barik eta lagunak ezin eutsen esaten ebanik ezer uleftu.

—Zer duk bada? Zer duk? Nork hola funditu hau?...

—"Nehorknereburuk!... Nehorknereburuk!"...

—"Herofek hire burua funditu balimbaduk", nork zer hoben dik beraz, eta zer nahi duk gure gandik?...

Eta Laminak oro suntsitu ziren berehala alderdi guzietara, gau ilhunean.

(Bizkayeraz)

2.—LAMINEA ETA ATSOA

Etxe baten senaf-emazte batzuk ei-ziran, adin eldukoak biak. Gizona goizetik joaten zan oera, eta andrea, bafiz, berandurafte eragoyon gabero "piro-piru" goruetan.

Baña, gabero baita bere eta beti tertzio baten, andra gaisoari emakume afotz bat jatziten yakon keoditik (tximinitik) bera, eta emakume afotz ofek ez eban alde egiten arik eta aparifik puzkaren bat lofru afte.

Goruleak naikoa eban bere urdaya efeten astea, bufunbada berbera ta eskabide berbera entzuteko: "Txitxi ta papa, papa buxtia?..."

Ba-ziran aste batzuk olantxe olantxe jazoten ekiola, eta andra gaisoa, afifuta, ez zan azafturen bere senafari ezer esaten, noiz-edo-noiz, aufki, Laminea etoften geldituko al zalakoan.

Ofaitino, gabe baten, senafari, amesetan legez, bere andreak norbaitegaz berbetan eragoyola iruditu yakon...

Andra gaisoa oera etofi zanean, itaunduten dautso senafak:

—Esan! ointxe ointxe ez dautsazu zuk nor-edo-nori berba egin?

—Bai...

—Nor izan dozu of, bada?

—Ara; neuk bere ez dakit arean nor dan, baña ba-dira egunen batzuk mamu berberori agertuten yatala, eta beti tertzio baten, apalduten asten nazaneko; eta zuzen-zuzen eskatuten daust: "Txitxi ta papa, papa buchtia?"

—Eta emon egiten dautsazu?

—Emon beafko! Noraezean, zer egin?

—Ondo dago! Biaf gabez, neu egongo naz zure ordez. Alako tertzioan olan etori datofkena ezin leiteke ezer onik izan! Edo sorgina izan edo Laminaren bat... biaf ikusiko dogu. Alik politozkoen imingo dodaz aldean zure lepokoa eta zure buru-zapia, eta zeu izango zaituzala an uste izango dau, beste gabetan legez.

卐 卐 卐

Biaramonean, esandakoanez, ba-doa andrea oera, eta gizona, bafiz, sutondoan gelditurik, asten da antxe goruetan bai 'liarduan...

Arik gitxigafenean, abafots andi bat asmetan dau, eta, bilinbolaka keoditik bera jatzirik, brau, albo-alboan jaften yako betiko ezezaguna, beingoan eskeka: "Txitxi ta papa, papa buxtia?"

Gure gizonak entzun-gof egiten dau, eta egundoko eyoenetan ekiten dautso "piru" eta "piru" goruetan. Eta ara bere Lamineak ba-dirautsa:

—Ori da lanean azkar eragotea, zure gaufkoa!

—Ba, atzo "frin-frin", "firun-firun", gaur "fran-fran", "furdulu-furdulu"... Eta goruleak ekin eta ekin eragoyon goruetan, begi zeafka afotzari begira. Beingoan ezagutu eban Lamina bat zala olan etoften zana, eta beingoan baita egin eban burupidea lenbaitlen uxatu beaf ebala anxilk.

Lamineak, bere aldetik, zerbait susmaurik, asten yako itaunka:

—Ez zagoz zu gaur betiko zeureatan. Gogof iruditen zatxataz. Zelan dozu izena?...

—"Neukneureburu".

—"Neukneureburu?... Eta txitxi ta papa, papa buxtia?..."

Gure gizonak sartagia sutondoan eukan -da, sutan imini koipez bete-beterik eta an itzi eban gori-gori egin arte.

Laminea orduan, pozaren pozaz, asten da eskuak igurtzi eta igurtzi: "Txitxi ta papa, papa buxtia!!...

Geyagoko barik, ordurako naiko goriturik egon zeitekeala iruditu yakonean, goruleak, brau, afturten dau sartagia eta, pla, botaten dautso koipea Lamineari arpegi -arpegira...

Laminea, beingoan, ba-doa ofoeka keodian gora, eta, an, kanpoan, gafaisi bizi baten batuten dituz bere Lamina-lagun guztiak. Eskuak bere arpegi efeari eutsozala, ai eneka eragoyon gelditu bere egin barik eta lagunak ezin eutsen esaten ebanik ezer uleftu.

—Zer dona, bada? ¿Zer dona? Nok ondatu au ofetara?...

—"Neukneureburuk!... "Neukneureburuk!...

—"Euk eure burua ondatu baldin ba' dona", zer efu yaukona inok, beraz, eta zer gura dona guganik?...

—Eta Lamina guztiak itsutu ziran alde batera eta bestera, gau ilunetan.

Bizkayeratzalea

GARCTAÑ BERNARTA M.

ERRIJETATIK

GAUTEGIZ DE ARTEAGA

JAYOTZA BAT. — Gure udal-buru Aluntiz'taf Pantzeska'ri alaba edef bat ekafi deutso bere emaztiak; eta ugutzau dabe Miren Eguzkiñe euzkel-ixen edefagaz, Zorijonak Pantzeska. Eta ba-deukozu baña Jaungoikuak, sendija damotsun legez, baña beronentzako ogija be gefu dagixubela.

¡A AMUÑUE...!—EUZKADI'k Kitolis eta Satufiño'n idazkija ekafi eban egunien, emeko emakume bat, asafatuta, juan ei-zan ufutizkiñera eta: tirin... tirin... tirin... Bilbao... EUZKADI... "Deme usted de baja en la suscripción a ese periódico", esan ei-eutsan. Eta beste gixon batek, au jakin ebanekoxe, idazkiz, bidaldu eyeban auxe... "Deme usted de alta en ese periódico". Eztau txafto. ¿Eta emakume arek Kitolis'enagafik, uste dozube, itxi dabela EUZKADI? Bai zera be, ¡margarita utsutsa dalako! Euzkadi euki ba-deu be, itxas-ontzijak nundik nora dabiltzazan jakiteko bakafik, euki dau ofek. Orain bafiz ofek etxi eta ainbeste seme-alabaren gurasuak afu. EUZKADI irabasten doye; ze emakume arek eztauko sendirik eta bestiek bafiz ainbeste mendigoxale eta emakume abefitzale Euzkadi geure Ama Abefija'rentzako.

BATZARA.—Igande afatsaldeko saspi-saspiretan ixango da Batzaf Orokof bat eta dei egiten yake Batzokira bertoko bazkide gustijai, gafantzi andiko gauza batzuk erabagiteko dalako.

¿NUN DIRE OŕEIK?—Orain lau urte urten eban "Artobero'k" eta, idazki gafatz bat eginda, geyago-barik ixildu zan. Gero "Zentellas"; gero "Tximistia", eta emon topekada gogof bana, eta ixildu... ¿Zer da au? ¿Nun saftu dira ofeik, geyago euren arnasarik be ez entzuteko? ¿Topekada bategaz bakafik adafak ausife kortara...? ¡Ia, ia! ¡Uften beste topekadatxu bana emoten, of oskildute margariten bilduñez, egon barik!

"Tximistie", emeko "tabernera simpatica" baten semiek Palasijoko landetako margarita aftien, ikusi dabelakua edo abestuten eben; baña ainbeste margarifak ikeratu ta edo, bera ixilik dau. Eta gauzia da ve emen baltaf-bakafik itxi nabela neu.

Idazki au amafuta gero ikusi dot, pozafen, Basorde'n idazkija; eta egi andijak difiozan afen, oindifio andijagua da: txadonan bafuan ikusi umiek eskubetan daukezan idaztifiuak eta kendu euretan euki oi -dabezan euzko-ikufiñen margozko txanteltxu eta beste ikuf gustijak egifie... Auxe be lotsagafijetan be lotsagafija ixan afen egin-egiten da emeko eftxadonan, Basorde, zuk ezpadakixu be. Edozetara bazorijona zeuri, Basorde, ondifio adafa sendo dakozulako.

IZPARKARIJA.

SORALUZE (Placencia)

"IRU GUDARI".—Aoz-ao zabaldutako izpafa naikoa zan geyago ezinda geure "Abenda-Etxea" jentez gañezka agertzeko larunbatean.

Antzerki lanetan ain zintzo jokatzen daben geure adizkidiok zurtasun osoa oraingotik ere erakutsi dabe Durango'ko antzefiari trebeak ekartiaz.

Eurak, berezil ikusgafi baten zortziretan geure arteratu ziran. Etxea'ri ikustaldi labuf bat emon ondoren, sasoirako, bederatzitako, prest agertu zitzaiguzen "Iru Gudari'ri" mamin gustia ataratzeko. ¡Eta zelan atara gero!

Ikaratuta gelditu giñan antzoki ez ezagun, txiki eta afanpalada baten ain egoki ta txukun antolatu zirala ikustean.

Beriala nabaitu zan jantzi ta tresnatan be diru poltsa polita azkatu beafa izango ebela ainbesteraño gertatzeko. Eta jakiña, gertakisun oyek zenbaterañokoak diran orduan da geyago ulertzen da lauki edo "cuadro'ren" gogoa ta aldiña.

Soraluze'n etzan ezagutzen "Iru Gudari" Durango'tafak erakutsi ziguten arte. Ofela larunbatean geure aretoan seireun batek ikusiko zuten eta bafiro ikusteko zirikatuta ere bai gelditu ainbat.

Ezta gauza efexa efi txikietan ain lauki osoa antolatzea. Geuri beintzat Durango'tafen goibelare igotzeko oinkadatxoak dirala iruditu zitzaigun...

Alako edo bestelako ondo egon zirala esaten ezin geinke asi, ba guzti gustiak bikainki agertu ziran-ta...

Emakume biak labufa bezin zala zeukaten bete beafa, benetan zala. Ta ain arduraz da tajuz betia bera ze, etzan astirik ikusleen artian aftu antzoki-oyala beratzeko ta emakume oyei txalo bero ta berezi batzuk opaltzeko.

Soraluze'ko abeftzalion izenez zorionik beroenak artu zazutez antzerlari gustiok, eta... ufena arte.

Antzerkiko abestiak geure abestaldetxoaren kontu ziran. Cñez asi befi danak lasterketa aundirik ezin ba egin... baña, ofaitiok ukatu eziña eurak be alegiñik asko ipiñi ebela ardura ortatik ondo azkatzen.

Antzoki bafuko ainbat tximits argi aldatzeak guztiz egoki iruditu ziran. Alberdi'taf Efemigi ta gañerako lagunak ditugu trebetasun ofen jabe.

Lakuesta'taf Koldobika jauna: ¿ufena nundik eta noiz datorkigu?

DRIS-DRAS.

Euzkotar umien aldez

Su gayak

"Asaben sutian piztu ufezko gafa,
ta goguan, bixitz-arau dan indafa.
Abefijan txadon donia
Areitz-suba dagon sutia."

Lauaxeta.

"BideBafijak".

Sua egiteko geyen erabiltzen ditugun gayak ikatza ta egufa dira.

Ikatza, mueta bitakoa izaten da egufikatza ta afi-ikatza.

Egufikatza mendian ikasgiñak egiten dute.

Onetarako, egufa ebaki ta pilo aundi baten ipintzen dute, gañetik lufez eztalita eta bafutik kientzat zulotxo bat utzirik.

Su emn eta astiro-astiro, gafik gabe bafuan efetzenda egufa.

Aize gutxi biaf izaten du onetarako. Aize asko ba'leu, gafa egingo leuke ba, ta egufdana efeko litzake autza beste gauzarik gelditu gabe.

Egufak baño bero aundiagoa du ikatzak, eta gañera kerik egiten ez dualako su garbia du.

Baña ondo piztu gabe dagoanean, edo leku itxian efetzen danean, oso tzafa da, erderaz óxido de carbono esaten yakon gaya ematen du eta au arnasean artu ezkero il egin liteke.

Afi-ikatza gizonak ez dute egiten, luf efayetatik ateratzen da.

Afi-ikatz mia-toki aundi ta ugariak Inglatefa'n dira, Alemania ta France'n ere bai.

España'n ere bai dira, Asturias eta Leon 'en ugarienak.

Antziñako denboretan—oraindik lufaren gañean gizonik ez zanean—bero aundiak eta euri asko izaten ziranean eta ludi onen azala edo gaña biguna zanean, garo landare aundi izugafiak ziran edozein lekutan, gaufko zugatz aundiak añakoak, eta lufaren gañian onelako zugatz aundi egufgabeko baso asko zan.

Baso aundi abek, luf-ikaren batean edo, lurperatu ziran eta aneika urtetan lufpean, bafungo beruaz eta aize gabe egonda afi-ikatz biurtu ziran. Onelaxe softu da lufaren efayetan afi-ikatza.

Afi-ikatzak begiratu batean afi beltz bat dirudi, afia bezelako gogofa astuna ta otza dalako, baña ondo begiratu ezkero, bera softu zuten landarien itxura ta mafezkiak ikusten zaizka.

Auxe da gauf burni-bide, ola lufun-ontzi lantegi ta etxietan egufikatzen ordez efetzen dan ikatza.

Baita ere labe garayetan burnia urtutzeko erabiltzen dana.

Afi-ikatzetik sua ez eze beste gauza asko ere ateratzen dira.

Erderaz kok izena duan efekia afi-ikatzetik ateratzen da, erderaz anilina izena duten margo-gayak ere afi-ikatzetik ateratzen dituzte, osaki batzuek ere bai, eta iñofk gutxien uste izango leukien beste gauza batzuek ere afi-ikatzetik ateratzen dira esaterako usai gozoak.

Berezko orio bat ere bai dago, afi-orioa edo erderaz petroleo esaten zayona.

Onek ere bero indaf aundia du eta ugari erabiltzen da gauf lufun ontzi, bultzi, beribil, olaetan eta abar, batez ere Amerika'n afi-ikatzen eta egufen ofdez.

Afi-orioen miatoki aundienak eta ugarienak Mexico'n, Rusia'n, Rumania'n eta Ipaf-Amerika'ko Pensilvania'n daude.

Gai abetan aitzen dutenak, Gipuzkoa'n, Ondafabi aldian ere afi-oria egon beaf duala esaten dute, ta orain ufte batzuek, Bizkai'ko Elofio izendu efi au afi-oria bilatzeko lan batzuek egin ziran, baña bertan bera ixildu zan gauza au.

ARITOKIETA.

PASKAL BAILON DEUNA

Paskal Bailon Zaragoza'ko Tofe-Hermosa efian 1540'ko ofila-18'n yayo zan. Bere gurasoak lugin landefak izan ziran, baña Jauna'ren bildurdun kistaf zintsoak, be ba' ziran eta, Paskal, Jauna'ganako maitasunean asi eban. Saspi urte eukazala, artzain-mendira bialtzen asi ziran. Zeregin onetan egoan bitaftean astirik ez eban galtzen. Lagunei itanduta berakautan irakurten eta idazten zerbait ikasi ebaneko idazti batzuk zuzendu ta irakurten eta otoitzean astia emoten eban. Batez be, Andra Miren'aganako zaletasun bizia eukon eta egunoro bere Elciz otoitzak egiten zituan. Orixe zala-ta, bere lagunen yolasetatik aldendu ta padar baten antzera bizi izan zan Ori gora bera, lagunei atsegin yaken, itzetan deuna, izakeraz otzana eta bere artu-emon gustietan oso leun eta atsegiña zalako. Artzaintxo onek zafen sentzuna, eta gotzonen garbitasuna, agertzen ebalako afituta begiratzen eutsoen. Alan da ba, batzuen izketa zakaf, eta biraoak zirala, ta beste batzuen ixekak bein baño geyagotan biotza samindu eutsoen. Berak baña, okefak bide oneratuten aleginduta, iñoren ixekari yaramonik egin barik, bere otoi eta laztasunetan yafaituten eban. Zeruko Ama'ganako maitasun sutsua txikitatik agertu eban, eta uriko base-eleizatxo bat ikertu ezin ebanean, artzain makilan zelanbait kurutzearen irudia irafi, eta Andra Miren'en irudi bat ezkegota otoi egiten eban.

Artzaintzak berez dakarzan neke ta lor ugariei gitxi eretxita, eten bako otoitzez gañera, laztasunez, toki lakar eta sastraka artetik ortizik ibilten zan, bere artaldearen maitasunez ainbeste neke igaro eban Artzain onaren gomutaz.

Amabi urte inguru zituala, Martin Garcia, basefitaf aberatz batek, gaste izan afen, bere artalde burutzat autu eban, eta an be bere zintsotasunaz, okef ebilen artzain zafena bide oneratutea lortu yaritxi eban. Ugazabari ain gogoko egin yakolako, ondifio amazortzi urte baño ez eukozala, bere alaba bakafaz ezkontzeko burubidea agertu eutson baña, Paskal'ek, bide ofetatik ondasun askoren yaube egingo zala yakin afen, Kisto'ren antzera txiro bizi-teko asmoa eukola agertu eutson. Ugazabak, bere ondasun banakaritza ia bere eskuetan ipiñi eban, zaletasun apuf bat sortu yakolakoan, baña dana alpefik, len baño geyagoz goiko deyari erantzuteko asmoa artu eban eto. Agerkunde baten bidez bere asmoa sendotu zan. Egun baten bidez yoyala, lekaide ta lekaime bat, uste danez, Asis'taf Pantzezka ta Kalare deunak lenago ikusi zituan tokitik igarotean bafiro ikusten zituala begitandu yakon, eta itz oneik esaten eutsoezala: "Paskal, zure bizitza, garbitasun txirotasun eta menpetasunera zuzendu beaf dozu". Esan eta egin, guraso ta ugazabak itxita, Valencia'ra. Monfort'eko pantzekatafen lekatxean sartzeko asmoaz, aldendu zan baña bildufez ala zurtasunez, ondifio sartzen ez zan anartu ta urte batzuetan, artzaintzat jafiatu eban. Lastef alde gustietan "artzain deuna,,'ren izenaz ezagutu eben. Lekaideakaz artu-ameon bafukoak zituan eta azkenean be, 1564'ko Otsala 2'n, Eltze'ko lekaretzean pantzezkataf soñeko deuna artu eban. Nagusiak koruko gura eben, baña, apaltasunez lego izatea autu eban.

LEKAIDE.—Bere burua Jaunaren etxean azke ikusi ebanean, eskintza bidez bere biotza lotuta, deunatasunean egazkada gofak egiten asi zan. Bere zeregin gustia, otoi, laztasun eta menpetasuna izan ziran. Zeregiñik apalenak pozen egiten zituan. Beti ortizik ibilten zan; soñeko zafenaz; gorputza estuntzaz inguratuta, zurdatz latzenaz nekatzen eban. Okelarik gitxitan jan; apaldu ia iñoz be ez, aldi asko ogi utsagaz igaroten eban eta barikuetan beti ogi ta urazbakafik. Olan gañean lo egiten eban, eta iru ordutik gora ez.

Geideaganako maitasunean bardingabea izan zan, beartsuentzat eskatu ta bere agotik ogia kentzen eban eurai laguntzeko, eta beti itz on eta gogoentzat onu osusunkofak emoten eutsezan. Ziñeste zindo ta sendoa benetan eukon, eta Jaungoikoa'ren laguntzen itxaropen osoa ipiñita gauzarik afigafienak egiten zituan. Uste ori, estu aldirik aundienetan be ez eban galdu. Gogo-bizitzan deunak igaro oi daben "gaba-iluna" eldu yakonean, bafengo leor-aldi, aragiaren istilu gofi, eta etsayaren ziltzaldi bildurgafien erdian garailari urten eban bere ziñeste biziari eskefak.

Apaltasunean, onbidean oñafi da-ta, sakon jo eban. Bere onbideak nondik estalduko ebilen. Iñoz efu barik nagusiak agiraka egitea gertatzen zanean, ixilik entzun, eta nagusiari oñetan nun-egin eta ezer erantzun barik aldentzen, biotza pozez beterik ebala. Beretzat gogo sutsua eukan eta onbide galikez egoan. 1570'n bere nagusiak, Buru Nagusia, Paris'en egoalako, bidayen bategaz bialdu eban. Galtzori andiko bidea zan, kalbiataf ziñausleak, lekaideai gofoto andia eutsielako. Gure deunak, pozik aundienaz agindunori artu eban eta lastef urten be, lekaide soñekoa kendu barik Parantze' kalbinotafen naspil aundia ebilen, eta safitan ixekaz eta irañez bete ta afika zaurituaz gañera, abeletxe baten atxilotuta euki eben, Eukaristi deuna ganako agertzen eban maitasun aundia agertzeafen. Ostera onetan bizia galtzeko afiskutik bein baño Safiagotan atara eban. Andik aufera Paskal'ek deunatasunean aufera beti egin eban, txirotasun, laztasun, eta lanean, eta nagusiak euren laguntzale arazo astunetan artzen eben. Eten barik otoi egiten eban bere biotza goyan bizi zan, eta Eukaristia deunaren eta Ama Miren'deunaren maitasunean, egiz Asis'taf Pantzezka deunaren jafaitzale zintsoa izan zan, eta konergetuta safitan ikusten eben. Une areitan ikasitako goi-argiz nonbait, otoyatzaz idazti bikaña idatzi eban.

Goteun edo Espiritu Santuak, emaitz ugariz bere gogoa bete eban. Zoritxafak bere otoitzez alde egiten eben, bein buru azur apurtu eban mutiko bat otoi eginda bapatean osatu eban, neskatotxo bat gorputz gustia zauriz beterik ebana, sama ikututa baete barik, beste baten minbizidun bat kurutzearen ezaugafi egin da beste barik zearo osatu eban. Olango askoez gañera iragarle emaitza be ba'eukon: eta onetariko bat bere eriotzako egun eta ordua aufeztik iragartea izan zan.

Vila-Real'eko lekaretxean egoala, igafi eban efiotzea uf eukola, eta lekaide bateri oñak garbitu eikiozala esan eutson. Ardura ori zer dala-ta artzen eban esan eutsonean ez afituzeko esan eutson, bear ba'dan Azken Igortzia artzeko izango zala. Esan eta egin. Egun gitxi bafu gexo astunak artu eban, eta zortzi egun gexorik igaro ondoren, neke gustiaz pozez igarota, Eleizakoak maitasunik aundienaz artu zituan. Asis'taf Pantzeska deunaren antzera ilteko, lur gofien gañean ipinteko eskatu eban baña, nagusien esanera gelditu zan, eta lekaretxeko Mesea, esaten egozala jakin-ebanean, otoi egiten gelditu zan, eta Eukaristia jasoten eben unean bertan Jesu'ren izen Deuna, esanaz, 159-'ko ofila-17'n, Jauna'ren eskuetan bere gogo gentsua ipiñi eban. II da gero be alatz ugariak egin zituan, eta obiratu baño len, bifiteko alditz Jauna Meserdian, jasoten ebela begiak idigi ta izten ikusi eben.

Aldi luzean gorputzak usteltzekeniraga eban, eta bere onbide guren eta alatz ugariak egiztu ondoren, V'en Paul'ek 1618'n zorundun eta VIII'n Alexander'ek 1690'n deunen izendegian ipiñi eban. Eta azkenez XIII'en Lon'ek Eukaristi Bankun gustien Zaindaritzat autu eban.

MITARGA.

Aro-erdiko Batzarrak ta langillia

ANGUSTIN

II

Batzaf onein lan-araudi estalpian, onbixi zan langilia. Zuzenak ziran lantzarijak, garbijak lantokijak; bixi-bidea artzeko, efeztasun andijak eukoezan umiak; aufetik ixentaurik egozan umien lan ta egon biafak.

Batzaf oneik ondatu ziran, baña. Bakafik gelditu zan langilia ta langilia bakaf onkaltez, Lateffija ta ugazaba batzaftu. Ugazabari ondo jatofken lantzarija ixan da, otdutik. Lanik gogofenetan ibili dabe emakume ta umia. Zaftzarorako ta alafgunstasunerako laguntasunik eztau aftu langilia. Otzua ixan da ugazaba; bildotzik erkin na langile gixaxua.

Gaurkualako ez goserik, ez lanik-eza, ez amofuak ez-eben esautu iñoz, Batzafofein bazkide zoruntsubak.

Kistaf-sendija, orduko aldijetan gendezan; lanerako zaletasuna, kistaf-anafasun aldi ofetan softu zan.

Gure egunetan, ¿zer dakusgu baña? ¿Zer diñosku Batzaf ofein osteko edestijak?

Batzafak 18'gafenian ondatu ziran France'n. Aztasunaren kaltez diralako, agindu baten bidez apufitu zituzan Chaupelier, Lekaleko efkaltzale ixanik. France'ri jarraitzoen beste efi ta latefijak.

Gixarte-auzija jayo zan, Batzafok ontatu ziraneko. Bertatik aspiratuba ixan langilia. Lagila baño, begikuagua yakugazabari lankina. Neikua etzalako lanje-emazte ta afaren lantzarija emakume-amafa umetxubak lanian asi ziran.

Afigafijak dira aldi ofetako zenbakijak; lotsagafijak lansarijak. Irurakuak ra lansafi ofeik: gixonentzakua, andrekuentzakua ta umientzakua.

1896'gafen urtia. Lufpian, miatz-laten lau-egiten ebenen lantsarijak onexek ra:

Gixonak, 1,80 laufleko; emakumiak, neskatilak, 0,40; mutikuak, 0,60.

1844'gafen uftian. Bederatzi ufte gitxijagoko 5.000 mutil-neskatok lan-eben, Belgika'n ufte ofetan. Bederatietik amairurafiokuak 9.000 ziran.

Aro-erdiko Batzafakin lantegi txiki ondatu ziran. Matxinadeak ekafi eban katasunaren bidez, non-nai ta zenbat lantegi izateko eskubidia eukaen ugaz Guda gofi bat softu zan ugazabaen aeskubide au dala-ta. Zefiek lantegi gedo andijaguak cukifiafen zan guda

Bildufgienak, zekenenak, lapufetan bienak, bafunbe-lagija zapaltzeko ardeeztaukoenak, guda au irabazi eben. (X

Belgika'ko urijetara befiro begiratzen, "Uri basteretan bixiten ziran lasendijak, kaleko etxe-sarija ordaindirurik ez-ebelako. Goxeko seiretan zan lana. Umiak, ogi-kuskuf bat beebela, lantegira bidian jaftzen ziran ofetako. Amairu, amalau ta amabost banlanian ziñafan.

Gixonak ogetalau orduko lana eben, lantegi batzubetan. Zafak, gu indefgiak, lanerako gauz etziran gubertatik jaurtiten ebezan, Kirten abata botaten dan letz.

Opof bat egiteko etzan gauz lan Sendi-bixitzarik etzan ezautzen. Azknak loturiko langiliak, bertatik igafiko Alkaftasunaren indafa ta egokiOlantxe jazo zan".

Batzafak ondatzeagandik etofitako txak tamalgafijak diraba.

Euzko-langile zintzo-zintzua: diren maltzufkerijagandik azke-ixan gudozu, batzaftu zadiz, afen. Zeure tasendijaren eskubide zuzenak jabon gadozuz, zeure arlokuakin bazkidetu Zeure arlokuakin, bakafik, zeure gutzalia, zeu bakafik zaralako.

Indafa da batasuna. Mafasuna da alkaftasuna.

Euzkotarentzat, baña, alkaftasun baño eztago.

Aro-erdiko Batzafak jabon eben lia. Antxiñakuak, gure egunai ez-jadira baña Batzafok.

Gure Batzarik guriena Euzko-Asuna da.

¿Apuftu guradozu- dirutzalekerija? ko-Alkaftasunaren bidez jadetziko ¿Lana ta langiliari jaoken lotzia tzia nai-dozu? Euzko-Langile-Batzatuko dotzu.

Droguería y Perfumería
MANUEL ALVAREZ MUGICA
Pinturas especiales de carrocería
Miracruz, 18 y 20. Tl., 10.618
Donostia

FASHION
Gizonesko - lantzi, korbata eta abar. Joskindegia.
Miracruz, 1. Urrutizkiña 13.682'garren.
DONOSTIA

EMAKUMES...
Visiten el salón de señoras de
MARY ZAPIAIN
Ultimos adelantos
Easo, 7. -- DONOSTIA. -- T. 11.020

J. M. Sansinenea
Enfermedades de infancia
Garibay, 5, 2.º Teléfono, 12.463.
DONOSTIA.

Dr. L. ZURIARRAIN
Corazón y pulmones. Rayos X.
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5.
Oquendo, 28, 4.º. T. 12.662. Donostia

Bazar Médico Ortopédico
FAJAS Y BRAGUEROS
Hernani, 1. Teléfono, 15.730
Instrumental médico Donostia

DR. VIDARTE
Sistemas nerviosos y mentales.
De 10 a 12 y de 2 a 5.
ELCANO, 10, segundo. -- Donostia.

F. LOIDI ZULAICA
ESPECIALISTA EN ENFERMEDADES DE LA PIEL Y SECRETAS
ALAMEDA, 6, 1.º. - Tl. 12.929. - Donostia

Dr. ZUBIA
Especialista en enfermedades de OIDOS, NARIZ y GARGANTA.
Legazpi, 1, 3.º Teléfono, 11.908. Donostia

J. I. Labayen
ESPECIALISTA
Enfermedades de pulmón
Alameda, 7, primero. — DONOSTIA

R. REZABAL
DENTISTA
Fuenterrabía, 4-1. - Donostia

IRULEA
Lencería.—Géneros de punto.—
Confección. Mayor, 7. Teléf. 16.029. DONOSTIA

Eguilegor y Beorlegui
Cafés tostados
Garantizados puros
Urbieta, 49. Teléfono, 15.192
DONOSTIA

EBANISTERIA Y CARPINTERIA MECANICA
Pedro Iparraguirre
Moraza, 15. Donostia. Tl., 11-023

V. GARAIZABAL
Enfermedades del aparato digestivo y nutrición. Rayos X
ZESTONA GIPUZKOA

La Villa de Bilbao
Muebles, camas aluminio, hierro latón. Coches niños. Relojes pared.
Aldamar, 2. T. 10.755. DONOSTIA

DENTISTA
ALVAREZ MUJICA
Legazpi, 9, 1.º - Teléfono, 13.355
DONOSTIA

ESTACION DE ENGRASE A PRESION - VULCANIZADOS
Garage Aracama
A. Miramón, 6 - Tl. 13.088 - DONOSTIA

ALMACENES LASAGABASTER
TEJIDOS Y NOVEDADES
DONOSTIA

PANIFICADORA LA ESTRELLA
Embeltrán, 2 y 4. — DONOSTIA
Ocho sucursales. - Servicio a domicilio.
Llámenos al teléfono 10.023

ULTRAMARINOS
Elícegui Hermanos. — Casa Delbos.
LEGAZPI, 4 y 6. — Teléfono, 100-91.
DONOSTIA

BAZAR KINTIN
Juguetes, vajillas y artículos para regalos.
Urbieta, 29. — DONOSTIA

Elósegui - Arriola
Huesos, Articulaciones, Deformidades
Prim, 27, segundo. - DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko mafi
Txomin Olano
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - D

Aranburu'tar
AZAL ETA TXIZ-BIDI
Fueros, 5, 3.º DONOS